

Arabako euskararen kokagunea

KOLDO ZUAZO *

I. ANTZINAKO LEKUKOEN IKUSMOLDEA

Arabian antzina euskaraz hitz egiten zela dioen lekukotasun ugari dago; Abaina, oster, lekukotasun horietan ez da Arabako hitz, esapide, eta, zer esanik ez, arau fonologiko edo ezaugarri morfosintaktikorik sekula aipatzen. Hau da, lekukotasun horietan ez daukagu Arabako euskara nolakoa zen jakiteko aukerarik.

Historian zehar euskararen ezaugarriak zehazten jardun dutenek ere ez dute sekula Arabako bereizgarriak aurkeztu. Hego Euskal Herrian, Larramendi izan zen zeregin horretan aurrena, baina ez beraren gramatikan, ez beraren hiztegian eta ez beraren *Corografía de Guipúzcoa*-n ere ez da Arabako albisterik.

Euskararenganako ardura handia zuen Kardaberaz lanetan ere ez dago inolako aipurik, nahiz eta hau misio lanetan ibilia zen Araban barrena. *Eusqueraren berri onac* liburuan Arabako euskararen egoeraz mintzatu zen, eta euskara eskolan erabiltzea debekatuta eta zigortuta zegoela ere salatu zuen (Kardaberaz 1761: 17), baina ez zuen hango euskararen izaeraz zertzelada txikiena erakutsi. Beste horrenbeste ikusten dugu Añibarroren gramatikan eta hiztegian. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat albiste jaso zituen, baina bat bera ere ez Arabakoa.

Hutsa da, era berean, Bonapartek esan zuena. Arabako zein herritan hitz egiten zen euskaraz zehaztu zuen, baina euskara horren izaeraz ezer argitu gabe. Bruno Etxenike lankidearekin izandako hartu-emanetan ere (ikus in Urkixo 1908-1910) ez dago inolako berririk, nahiz eta Etxenike Gasteizen bertan bizi izan zen aldi baten.

* EHU-ko irakaslea.

Erabateko isiltasun honen azpian arrazoiren bat izan behar eta, baliteke, Arabako euskarari ezer berezirik ez sumatzean, gainerako euskalkietan ezaguna ez zen ezer ez ikustean egotea isiltasunaren gakoa. Behinik behin, Bizkaira, Zuberoara edo Erronkarira, esate baterako, joan direnek sarri nabarmendu dute hizkera horien gaineko zer edo zer, ez bairik gabe ezaugarri berezi eta ezezagunak aurkitu ohi dituztelako eurretan.

Are gehiago, Arabatik kanpo ikusten den isiltasun bera ikusten da Araba barruan. Gasteizen jasotakoa dirudien Landuchioren hiztegian, esate baterako, ez da bere jatorria argitzen duen inolako albisterik. Zeharka jakin dugu, era berean, Juan Perez de Betolatz, Joan Bautista Gamiz eta Julian Garzia de Albeniz arabarrak zirena, eta oraindik ere ezezaguna dugu Martin Portalen jatorria, beronen hizkerak Arabakoaren antz handia duen arren. Badi-rudi, beraz, Araba bertakoek ere ez zutela ikusten euren euskara gainerako euskaldunenaren aldean bereiz eta desberdin.

Aurkeztu dudan uste hau sendotzera datoz, iragan garaietatik hasita, euskalkiak sailkatzen jardun dutenen aipuak. Sekula ere ez dio inork *euskalki* deitura eman Arabakoari, eta beste euskalkiren baten adartzat edo, bestela, tarteko hizkeratzat jo izan da: bizkaieratik gertu dagoena, batzuen ustez, eta gipuzkeratik gertu dagoena, besteen ustez.

Oihenartek sailkatu zituen lehenengoz euskalkiak eta gipuzkerarekin lotu zuen berak Arabakoa: “La forma navarra difiere no poco de ésta [Ipar Euskal Herriko euskara], más la de la Vardulia, o sea de Guipúzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, o bizcaína” (Oihenart 1657 [1971]: 353).

Larramendik tarteko hizkeratzat jo zuen bere gramatikan: “el Bascuenze tiene el dialecto Guipuzcoano, del Señorío, ò Bizcaíno, y Navarro, ò Labor-tano, que comunmente es uno mismo, aunque ay bastante mezcla de los demás dialectos; y es tambien lo que sucede en Alaba, que participa de todos ellos, mas ò menos sincopados, y variados” (Larramendi 1729: 12).

Hiztegian, ostera, Bizkaikoarekin berdindu zuen: “A tres Dialectos principales reducirémos todos los que tiene el Bascuence, al Navarro, al Bizcaino, y al Guipuzcoano (...). No hago mençion particular de Alaba, porque en lo general su Dialecto es el Bizcaino, y tambien en lo general el dialecto del Vascuence Francès, es el Navarro” (Larramendi 1745: xxvii). Eta beherago, bizkaieraren eremuaz mintzo zela, zera erantsi zuen: “Este se habla en el Señorío generalmente, y tambien por lo comun en Alaba, y en los lugares rayanos de Guipuzcoa” (Larramendi 1745: xxviii).

Geroago idatzitakoa den *Corografía de Guipúzcoa*-n lau euskalki aipatu zituen: zuberera, lapurtera [aldeak alde, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garaian mintzatzen zena], bizkaiera eta gipuzkera (Larramendi 1969: 295hh), eta hauxe esan zuen Arabako euskaraz: “El dialecto de Alaba en lo más es el mismo de Vizcaya, no en el todo” (Larramendi 1969: 299).

Añibarrok, berriz, tarteko hizkeratzat jo zuen hurrengo mendean: “Esta [Nafarroa], y la Provincia de Alaba tienen bastante mezcla, y participan de los dialectos de sus Provincias vecinas” (Añibarro 1969: 12).

19. mende erdialderako, Bonapartek euskalkiak jasotzeari ekin zioneko, euskara oso galduta zegoen Araban. Bizkaiko eta Gipuzkoako muga ondoko herri gutxi batzuetan baizik ez zirauen bizirik, eta Bonapartek (1863) bizkaiera barruan sailkatu zituen hizkera horiek guztiok.

2. MITXELENAREN 1958KO IKUSMOLDEA

1958an argitaratu zuten Manuel Agudek eta Koldo Mitxelenak Landuchio italiarrak 1562 aldera osatutako *Dictionarium Linguae Cantabrigicae* (aurrerantzean *DLC*). Argitalpen honen sarreran hiztegiko hizkera aztertu zuen Mitxelenak, eta euskarazko ordainak jartzen jardun zuten hiru lagun euskaldunetarik biren hizkera Gasteiz aldekoa izan zitekeela erakutsi zuen. Hirugarrenarena nabarmen bestelakoa zela ohartu zen, baina jarri zituen hitzak hain urriak direnez, ez zuen honen jatorria zehaztu. Hala ere, beste biak baino ekialderagokoa ematen du eta, ziurrenera, euskara hobeto gordetzen zen lekuren batekoa; beste biek idatzitako erdarakada gordinen orde, euskarazko zuzenak ipini ohi zituelako honek.

Ondorioak ateratzeko aukera hobea dago Gasteiz aldekoak diruditenek jarritako hitzetan, eta, Mitxelenak, hauen hizkera bizkaieratik beste euskalkietatik baino hurbilago ikusi arren, ez zuen harekin zeharo berdindu eta nahiago izan zuen euskalki berezitzat hartu. Honela azaldu zuen bere iritzia: “De este somero examen podemos concluir con razonable seguridad que la variedad de que da testimonio este documento no ha llegado hasta nuestros días. Tampoco nos es conocida, que nosotros sepamos, por textos más recientes. Está claro por otra parte que de los dialectos vascos conocidos es con el vizcaíno con quien muestra mayor afinidad (Mitxelena 1958 [1998]: 41).

‘Hegoaldeko euskalkia’ deitu zuen Mitxelenak aurkitu berria, eta izen horrekin iraun du gaur arte.

Erabaki hori hartzeko, Landuchioren hiztegia bere garaiko eta bere inguruko izkribuekin alderatu zuen oso irizpide zuzenez, alegia, Garibai (Gar), Betolatza (Bet), Mikoleta (Mik), Kapanaga (Kap), Iburguen & Cachopin (Ib), 1596ko *Refranes y Sentencias* (RS) eta *Viva Jesus* (VJ) deitu ohi den kristau-ikasbidearekin. Baita mendebaleko Erdi Aroko kantu zaharrekin eta 18. mende hondarreko Oñatiko eskuizkribuarekin (Oñ) ere.

Alderatze hori egin ostean, hainbat desberdintasun ikusi zituen *DLC*-ko hizkeraren eta Bizkai aldekoenaren artean. Multzo bitan banatuko ditut desberdintasunok. Arau fonologikoak eta ezaugarri morfologikoak aipatuko ditut batean, eta aldaera fonetikoak bestean.

1. Arau fonologikoak eta ezaugarri morfologikoak

(1) *DLC*-n ez da bokal bitu edo geminaturik ageri. Mitxelenak zioenez, ugariak dira Kapanagaren kristau-ikasbidean eta *VJ*-n eta, urriago izan arren, *RS*-n eta Garibairen izkribuetan ere badira. Ez, ordea, Betolatzaren eta Mikoletaren izkribuetan.

(2) *DLC*-ko grafiek ez dute bokal sudurkarien aztarnarik erakusten. 16. mendean bertan, ostera, bai Madariaga arratiarrak eta baita Garibai arrasatearrak ere horrelako bokalak bazirela euren hizkeretan esan zuten, eta hurrengo mendean ere bizirik zirauten Kapanagaren kristau-ikasbidean.

(3) *DLC*-n bere horretan iraun dute *-ain* eta *-uin* diptongoek, Bizkai aldeko izkribuetan *-an*, *-un* bilakatu diren bitartean. *DLC*-n ‘nuera muger: *errayna*’, ‘beço: *ezpainá*’, ‘ençima: *gaynean*’, ‘deslizarse: *labayndú*’, ‘neruio: *çayna*’, ‘estornudo: *vsayna*’ agertzen dira, alde batetik, eta ‘badil: *barçuyndá*’, ‘baho: *lurruñá*’, ‘beso: *muyñ*’, ‘meollo: *vñá*’, bestetik. Aldaera berezi hauek ere badira: ‘cola de animal: *vuztayñá*’ eta ‘escura cosa: *gauça yluñá*’. Bizkai al-

deko izkribu zaharretan, ostera, *errana* (RS), *ganean* (RS, Mik, Kap, Ib, VJ), *laban* (Mik), *sana* (Mik, RS), *buztan* (RS, Gar) batetik, eta *barsuná* (Mik), *lurruna* (RS), *mun eguin* (RS, Kap, baina Oñ *muiña*), *una* (RS), bestetik, agertzen dira. Izkribu zaharrotan azaltzen ez diren arren, gaurko bizkaieran erabili ohi diren *espan* eta *ilun* aldaerak ere aipatu zituen Mitxelenak, *DLC*-tik aldentzen zirela erakusteko.

(4) Bizkai aldeko izkribu zaharretan desberdinak dira **-ane* eta **-ani* amaieren emaitzak. Batarena *-ae* da eta *-ái*, berriz, bestearena. Horren adibide dira **-ane* amaieratik eratorritako *baeti* (RS), *baea*, *azafraea* (Mik), *capitae* (VJ), *Jaun Romae* (Ib), alde batetik, eta **-ani* amaieratik eratorritako *arzayoc*, *ezayric* (RS), *arraiac*, *arçaiac* (Gar), *eçaiñac*, *usain* (Kap), *esaña*, *mandasayña* (Mik), bestetik. Ostera, *-ai* da bai amaiera batak eta bai besteak *DLC*-n izan duten emaitza: ‘açafrañ: *açafrayá*’, ‘capitan: *capitayá*’, ‘gauilan: *gaurayá*’ daude **-ane* amaieratik eratorritakoen artean eta ‘peçe pescado: *arrayá*’, ‘olor: *vssaya*’, **-ani* amaieratik eratorritakoen artean.

(5) *DLC*-n *-kin* morfema dago sozietiboan eta, ostera, sg. *-gaz*/pl. *kaz* Bizkai aldeko izkribuetan.

(6) 3. graduko erakusleak *arc*, *artan* dira *DLC*-n. Mitxelenak zioenez, bizkaieran, antzinakoan zein oraingoan, saihestu egin ohi dira *-rk-*, *-rt-* kontsonante multzoak. Edo dardarkaria galdu da (cf. *ak*, *atan*) edo bokal epentetiko bat sartu da (cf. *arek*, *aretan*).

(7) Izenordain zehaztugabe bereziak azaltzen dira *DLC*-n, alegia, *çerbere* ‘ezer ere’, *norbere* ‘inor ere’, *noxbere* ‘inoiz ere’. Mitxelenak zioenez, aferesiarren ondorioz sortutakoak edo, bestela, zuzen-zuzenean izenordain galdetzailen gainean eraikitakoak izan daitezke aldaera horiek.

(8) *DLC*-n *-de* pluralgilea agertzen da *daode* adizkian. Mitxelenak zioenez, bizkaieran, antzinakoan zein oraingoan, *-z* da pluralgilea: *dagoz*.

2. Aldaera fonetikoak

Oso esanguratsutzat jo zituen Mitxelenak *DLC*-n agertzen diren aldaera fonetiko batzuk. Bestelakoak ziren Bizkai aldeko izkribuetakoak eta, bere us-tez, gertaera honek ere *DLC*-ko hizkera beste euskalki batekoa zela salatzen zuen. Hona hemen aldaera fonetikoon zerrenda:

DLC-n *guerrial*/RS-n *garrian*.

DLC-n *eçurral*/RS-n *azur*, Mik *assurrá*.

DLC-n *erdareal*/gaurregungo bizk. *erdera*.

DLC-n *yçenal*/RS-n *huçen*, Mik *usena* (baina Gar, Bet, Kap *içen*).

DLC-n *ylçeal*/Mik *unçea*, Oñ *ultziacaz*.

DLC-n *hirten*/Bizkai aldeko lekukoetan *urten*.

DLC-n *ygueri eguin*/Madariaga, Mik *uguer* (baina Oñ *igueri juan*).

DLC-n *eşinl*/RS, Mik *echun* (baina Oñ *etzin*).

DLC-n *guchi*, *gutil*/Bizkai aldeko lekukoetan *guichi*.

DLC-n *ynguiruan*/gaurregungo bizk. *inguru*.

DLC-n *yguçquia*/Bizkai aldeko lekukoetan *eguzquia*.

DLC-n *ybilil*/RS, Mik *ebili*.

DLC-n *viur[r]tu*/Bet, RS, Mik, Kap *viortu* (baina *DLC*-n ere *viur-* dago *viorroquey* bezalako aldaeretan).

DLC-n *soroa* ‘heredad’/RS-n *soloy*.

DLC-n *aldareal*/Kap *altara*.

Herskariei dagozkien gorabehera batzuk ere aipatu zituen Mitxelenak:

DLC-n, alde batetik, Bizkai aldeko lekukoetan ageri ez diren bokalarteko kontsonante galtze batzuk gauzatu dira, hala nola: *-tegi* > *-tei* (cf. *arteya* ‘artegia’, *errlateya* ‘erlategia’), *-ago* > *-ao* (cf. *andiaoa* ‘handiagoa’, *ez queao* ‘ez gehiago’), *asçeyn eguin* ‘atsegin’, *Erroma arguiçaya* ‘argizagia’, *nausia* ‘nagusia’. Aldi berean, *DLC*-n gorde egin dira Bizkai aldekoetan galdu diren kontsonante zenbait, hala nola: *agua* ‘ahoa’, *sugatea* ‘sukaldea’ (*RS suatean*, baina Mik *sugatea*).

Beste alde batetik, *DLC*-ko hitz batzuen hasierako herskaria ez da beti Bizkai aldeko lekukoetakoa bezalakoa. Hauetan herskari ahoskabea agertzen den batzuetan ahostuna agertzen da *DLC*-n, eta alderantziz. Horren adibide, *DLC*-ko hauek jarri zituen Mitxelenak: *barea* ‘pala’ (gaurregungo bizk. *para*), *barcatu* (Bet, Mik, Kap, *VJ parcatu*), *becatua* eta *becataria* (Bet, Mik, Kap, *VJ pecatu*, baina *becatari*), *bugesa* ‘higa’ (Gar *pusesa*, Mik *pujesa*), *vagussoa* ‘paloma torcaza’ —baina *paguoa* ‘roble’— (gaurregungo bizk. *pag(a)uso*), *pirrichicuac* ‘hongo de prado’ (Mik *barrachicoa*), *pisça* ‘espuma’ (Mik *viza*, *RS viehszdunic*), *pulçatu* (gaurregungo bizk. *bultz egin*, baina Oñ *pultzaca*), *dilistea* ‘lentejas’ (*RS tilista*), *ditarea* (Mik *titarea*), *ditia* (Mik *titia*), *temporea* (Mik, Kap, *VJ*, Oñ *dempora*), *galtea* ‘perdida’ (*RS*, Ib, Kap, e.a. *calta*, *calte*), *galamua* ‘cañamo’ (gaurregungo bizk. *kalamu*), *gatea* ‘cadena’ (Mik *catea*), *gatigua* (Ib, Kap *catigu*), *goylarea* (gaurregungo bizk. *koillara*), *goypea* (Mik *coypea*, *RS coypasu*), *guya* ‘cuna de niño’ (gaurregungo bizk. *kuma*), *quilçea* ‘llaue’ (Mik *guilsea*, Gar *quilça*-, baina Oñ *quiltza*), *corrincoa* ‘yema’ (Mik *gorringoa*), *vea* ‘delgado’ (Mik *mea*), *beaça* ‘amenaza’, *madurea* ‘dehesa’.

3. 1958AZ GEROKO IKERKETAK

Asko aurreratu da joan den berrogei urteotan Arabako euskararen eza-gutzari dagokionez. 1982an Sabandoko Joan Bautista Gamizen bertsoak argitaratu zituen Jon Goikoetxeak, eta bertso hauetako hizkera ikusita, Martin Portalena berdintsua zela ohartu zen Mitxelena: “Me permito sugerir que el tipo de lengua más parecido al de Gamiz que conozco es el que nos ha sido transmitido por un *Romance al Santissimo Sacramento*, premiado en 1610 (...). Porque, aunque premiada en las fiestas del Corpus de ese año en Pamplona, no puede proceder ni de Pamplona ni de su cuenca. Ni, casi con seguridad, de ningún otro lugar de Navarra” (in Goikoetxea 1982)¹.

1986an, berriz, Juan Perez de Betolatza arabarra zela, Betolatza herrikoa bertakoa, jakin zuen Henrike Knörrek eta, oraindik orain, Araiakoa izan daitekeen Julian Garzia de Albenizen itzulpen zati bat aurkitu dute Victor Hildagok eta Fidel Altunak, nork bere aldetik.

Izkribu hauetaz gainera, laguntza handikoak gertatu dira batez ere Gerardo Lopez de Gereñuk egin dituen biltze lanak: toponimiarena (Lopez de Gereñu 1956hh) eta lexikoarena (Lopez de Gereñu 1958-1973-1982). Tanke-

¹ Poesia honetako hizkera dela-eta, hauxe esana zuen Mitxelenak urte batzuk lehenago: “puede tratarse de la lengua de la Barranca o de la Burunda o incluso, por lo que acertamos a adivinar a partir de escasos indicios, de las Amescoas o de Lana” (Mitxelenak 1964: 121).

ra honetako lan gehiago ere argitaratu dira, gainera (ikus in Zuazo 1998).

Lanabes hauei guztioi esker, Arabako euskararen ikuspegi zabalagoa eta sakonagoa daukagu, eta gauzak beste era batera ikusteko bidea zabaldu zaigu.

Alde batetik, Betolatza bizkaitarra zelakoan ginen eta, orain, Gasteiz ondokoa zela azaldu da. Ezin jakin zein neurritan islatu zuen bere jaioterriko hizkera, baina lau mendeko tarte zabala gorabehera, bere kristau-ikasbidekoa eta gaurregun Arratia-Otxandio aldean egiten dena tankera berekoak direla esan daiteke². Betolatzaren hizkera aztertu ostean (Zuazo 1998b), ez dut bertan mendebalekoa ez den –edo iragan garaietan izan ez den– (ia) ezer aurkitu.

Ezin jakin, era berean, Joan Bautista Gamizek eta Julian Garzia de Albenizek ere zein neurritan islatu zituzten euren jaioterrietako hizkerak, baina Gasteiz baino ekialderagoak diren izkribu hauek *DLC* bera baino hurbilago daude gauza batzuetan bizkaieratik. Hori dela-eta, hain zuzen, Mitxele-nak *DLC*-ko hizkera euskalki berezi bati zegokiola aldarrikatzeko aipatu zituen zortzi arau fonologiko eta morfologikoetatik lau, behinik behin, gainbehera etorri dira orain. Alegia:

(1) *-ain* eta *-uin* diptongoek bere horretan iraun izana. Hala da, bai, *DLC*-n, baina *espanac* ‘ezpainak’, alde batetik, eta *bigundu*, *mun*, bestetik, jarri zituen Gamizek. Egia da, bestalde, *-ain* duten *gañean/gueñean* ‘gainean’ jarri zituztela Portalek eta Albenizek hurrenez hurren, baina aldaera berezia da hau, beherago (§ 4.2) ikusiko denez. Dena dela, diptongorik ez duen *ganeti* erabili zuen Betolatzak, eta Arabako toponimiari dagokionez, *gan* dago Arabako sartaldean eta *gain* sortaldean. Bien arteko lehia dago erdialdean, baina *gan* nagusi dela.

(2) *DLC*-n sozietiboko morfema *-kin* den arren, bai Gamizek eta bai Albenizek *-kin* zein *-gaz* biak erabili zituzten. Bestalde, baliteke *DLC*-n ere *-gaz* hori *-az* itxurapean agertzea. Horren lekuko izan daitezke ‘arrouador que mide: *arrobeaz pesaytā deuenā*, ‘patear: *oñaz osç eguin*’ tankerakoak. Instrumentalaren morfema ere izan daiteke, jakina; baina, gogora dezagun, sozietiboko *-kin* ere sarri agertzen dela *DLC*-n balio horrekin: *oñaquin sacatu*, *purgueaquin purgadu*, *uyaquin erançi*... Dena dela, *-gaz* morfema *DLC*-n izan edo ez izan, kontua da Gamizek eta Albenizek ezagun zutela. Betolatzak, berriaz, singularrean ez eze pluralean ere erabili zuen *-kaz*.

(3) *DLC*-n *egon*-en adizkietan *-de* pluralgilea agertu arren (*daode*), *-de* zein *-z* erabili zituzten Gamizek eta Albenizek. Gamizek *-de* zuen ohikoena (*gaode*, *zaodel zaude*, *daodel daude*), baina *dagos* ere jarri zuen behin eta *-z* dago Albenizen adibide bietan: *dagoz*, *dauzen* ‘dauden’. Portalen poesian adizki bik daramate pluralgilea eta *-z* du hauetako batek (oso adibide ona, bestalde): *digus* ‘dizkigu’. Bestea *ditu* da, baina mendebaleko hizkera batzuetan ere *-it* pluralgilea dago *edun*-en adizkietan. Betolatzaren kristau-ikasbidean, ostera, asko dira pluralgilea duten adizkiak eta *-z* da erabat nagusi: *dagoz* ‘dau-

² Harritzekoa begitantzen zait Betolatza herria Gasteiztik dozena bat kilometrora izanda eta, batez ere, Gasteiz bera izanda –alde handiz, gainera– Betolatzatik gertuen dagoen hiri nagusia, Juan Perez de Betolatzaren hizkeraren eta *DLC*-koaren artean dagoen alde handia. Dena dela, Bonapartek berak ere Otxandioko eta Durangaldeko hizkerekin sailkatu zuen Betolatzakoa.

de', *gagoz* 'gaude', *çagoçana* 'zaudena', *egoçanac* 'zeudenak', *daquiguçan* 'dakizkigun', *deuscuzanac* 'dizkigunak', *deusuguz* 'dizkizugu', *jacaz* 'zaizkio', *eguizuz* 'itzazu'... eta are -z pleonastikoa duen *dituz* 'ditu'. Beraz, Araba osoan zen -z pluralgilea eta, gainera, beherago (§ 4.2) ikusiko denez, berezia da *egon* aditzaren auzia.

(4) *zerbere* 'ezer ere', *norbere* 'inor ere', *noxbere* 'inoiz ere' tankerako ize-nordain zehaztugabeak ez dira Arabako gainerako lekukoetan azaltzen: *iñor*, *yñoen*, *ecer* jarri zituen Betolatzak eta *ezervere* Albenizek. Litekeena da, beraz, Gasteiz bertako edo Gasteiz inguruetako bilakaera berezia izatea; ez, behintzat, Araba osoko ezaugarria.

4. ARABAKO IKERKETEN EGUNGO EGOERA

4.1. Arabako hizkuntza eremuak

1958tik hona Arabako lanabes gehiago ditugula esan da arestian, baina euskalaritzako gainerako arloetan ere izan da aurrerakuntza. Gaurregun, beraz, beste era batera aurkeztuko nuke Arabako euskararen kokagunea.


Hasteko –eta espero zenez– ez zen euskara berdina egiten Araba osoan. Toponimiaren arabera, badirudi sartaldetik sortalderako norabidean doazela isoglosa nagusiak. Ziurrenera ez zen eten garbi eta erabatekorik inon eta, aitzitik, mailaz mailakoa zen aldakuntza. Dena dela, ez daukagu behin-betiko erabakiak hartzeko lain argibide eta, erosotasunez, Araban hiru hizkuntza eremu zirela esango dut: sartaldekoa, erdialdekoa eta sortaldekoa. Sartalde/sortalde banaketa, behintzat, garbia da. Halaxe ikusi edo iradoki zuten M. Nieves Sanchezek (1985) eta, are argiago, Henrike Knörrek (1985), nork bere aldetik Arabako toponimiako zenbait osagai aztertu zituztenean. Nik, dena dela, hirugarren eremu bat ere bereiziko nuke: erdialdekoa. Aurreko bien tartekoa dugu hau eta, halakoetan gertatu ohi denez, bateko eta beste ezaugarriak nahasten dira bertan. Baditu, gainera, bere-bereak diren bereizgarriak.

Ondoko mapan azaltzen ditut toponimian oinarrituta egin ditudan hiru hizkuntza eremuen gutxi gorabeherako mugak. Legutiano eta Zigoitia lerrotik ezkerretara dagoena da *sartaldea*. Arratzu-Ubarrundia³, Barrundia, Gasteiz, Burgelu eta Dulantzi udalerriek eta Trebiñoko konderrriak osatzen dute *erdialdea* eta Donemiliaga, Agurain, Iruraitz-Gauna, Maeztu eta Bernedo⁴ lerrotik eskuinetara dagoenak *sortaldea*. Gaurregun Nafarroako Burundan egiten den hizkera bereziak Arabako sortaldeko honekin egin zezakeela bat uste dut (zehatzago in Zuazo 1994), eta baita, beharbada, behiala Amekoetan eta Lana haranean egiten zirenek ere (zehatzago in Salaberri 1998).

Banaketa hirukoitz honen alde datoz Arabako izkribu apurrak: sartaldekoa da Betolatz, erdialdekoa da *DLC*-ko lankide biren hizkera eta sortaldekoak Gamiz, Garzia de Albeniz eta, itxura guztien arabera, Portal.

³ Tarteko kokagune baten ikusten dut Arratzu-Ubarrundia. Bonapartek berak ere Otxandioko eta Durangaldeko hizkerekin batera sailkatu zituen udalerrri honetako herri gehienak, baina Leintzekin eta Oñatirekin batera Landa eta Uribarri-Ganboa.

⁴ Bernedoren kokagunea ez zait iruditzen erabat argia; tarteko eremua izan zitekeen hau ere.



ARABAKO HIZKUNTZA EREMUEN CUTXI GORABEHERAKO MUGAK (Koldo Zuazo 1998)
(Marrakia: Andoni Elordui)

Gaurregun Gipuzkoan eta Bizkaian diren isoglosek aspaldi Araban barrera jarraitzen zutela ematen du. Alegia, Arabako sartaldeak Bizkaiarekin egiten du lotura eta, Deba arroarekin, Arabako erdiguneak. Horrelaxe sailkatu zituen Bonapartek ere 19. mende erdialdean bizirik zirauten Arabako hizkerak. Beraz, Bonapartek *bizkaiera* eta nik –ustez, zuzenago– *mendebaleko euskalkia* deitzen dudan eremuan sartuko nituzke Arabako sartaldea eta erdialdea.

Ostera, Arabako sartaldea eta Nafarroako Burunda (eta Lana eta Ameskoak) ez nituzke euskalki horretan erabat sartuko. Tarteko hizkerak dirudite hauek; mendebaleko euskalkiaren, erdialdekoaren eta euskara nafarreraren tartekoak.

4.2. Mitxelenaren oinarriak

DLC-ko hizkera bizkaiera ez zen beste euskalki bati zegokiola esateko, lau arau fonologiko eta beste lau ezaugarri morfologiko aipatu zituen Mitxelenak. Baita, nire kontuen arabera –baina gehiago izan daitezke– hamabost aldaera fonetiko ere. Hamabost hauei, bokalarteko herskari ahostunak galtze eta gordetze adibide batzuk eta hitz hasieran herskari ahoskabeak edo ahostunak zituzten beste adibide batzuk gehitu behar zaizkie.

Eskertzekoa da zortzi arau fonologiko eta morfologiko aurkeztu izana, 1958garrena arteko euskal dialektologiaren tradizioan hori ez zelako ohikoa. Baina, dena dela, zortzi arauko kopurua ez zait iruditzen *euskalki* kontzeptua erabili ahal izateko oso oinarri sendoa.

Orain, gainera, *DLC*-n betetzen diren zortzi arau horietako lau ez zirela Araba osokoak dakigu (ikus § 3), eta 3. graduko erakusleetako *-rk-*, *-rt-* kontsonante multzoez ere ñabardura bat edo beste egin dezakegu. Alde bate-tik, kontsonante multzo horiek mendebalean ohikoak ez badira ere, Deba arroan –Leintzen, Antzuolan eta Bergaran, behinik behin– badira eta, alde-rantziz, kontsonante multzo horiek desegiteko joera (cf. *(h)arekl (h)arrek* ‘hark’ gisako erakusleak) mendebaletik oso urruneko hizkeretan ere gauzatu ohi da.

Aldaera fonetikoak direla-eta, kopuruaz ez dut ezer esango, baina bai osterantzeko gertakari batzuez.

Lehenengo eta behin, ez dirudi bokal arteko herskari ahostunak galtze-ak edo gordetzeak hizkuntza eremuak egiteko balio duenik. Hau da, *nausil nagusi*, *andiaol andiago*, *aoal agoal aboa* bezalako aldaerak ez du ematen –salbuespenak salbuespen, behinik behin– euskalki batekoak edo bestekoak direnik; alderantziz, nonahi gertatzen direla esango nuke. Mitxelenak, esate baterako, *DLC*-ko *asçeyn* aldaera bizkaieratik aldendu egiten dela zioen, eta, ostera, aldaera horixe da Oihenartek jasotako Bizkaiko poesian azaltzen dena; cf. lehen bertsoko *atseyñ andia da amore Eutea* (Oihenart 1967: 37). Era berean, *DLC*-ko *sugatea* aldaera *RS*-n *suatea* zela, baina Mikoletak *sugatea* dakarrela zioen Mitxelenak berak.

Hitz hasieran herskari ahostunak edo ahoskabeak izatea ere ez da –beti, behintzat– euskalki bataren edo bestearen ezaugarria. Esan ohi da mendebalean direla herskari ahoskabe gehien (cf. *parkatu*, *pekatu*, *pago*), baina, esanak esan, ahostunak ere badira mendebalean (cf. *bake*, *barre*, *denpora*). Bestalde, ahoskabea edo ahostuna duten aldaerek ez dituzte –beti, behintzat– eremu

trinkoak osatzen. Horren adibide, Mitxelenak *DLC*-tik hartutako *galte* ‘kalte’. Mitxelenaren arabera, Bizkai aldeko lekuko zahar guztietan *caltal calte* agertzen da, baina –eta hau ere Mitxelenak berak aipatutako adibidea da!– Erandioko Martiartutarren armarrarian *Lepoan galtea daguiñanac* goiburua azaltzen da (Mitxelena 1964: 170). Era berean, *DLC*-ko *goylarea* bizkaieraz *koillara* zela esan zuen Mitxelenak, baina handik urte batzuetara Mitxelenak berak argitaratu eta aztertutako Zumarraga durangarraren gutunean *gollara-oc* agertzen da (Mitxelena-Tovar-Otte 1981).

Bestalde, *DLC*-n *barcatu*, *becatu*, *becataria* azaldu arren, ekialderagoko Albenizek *barcatu* zein *parcatu*, *becatu* zein *pecatu* eta *becatari* zein *pecatari* erabili zituen eta *peccatoria* Portalek. Betolatzak ere *parcatu*, *pecatu* erabili zituen, baina *barcatu* Gamizek.

Mitxelenak aipatutako gainerako hamabost aldaera fonetikoei, berriz, hizkuntza eremuak zehazteko egokiak irizten diet, oro har. Baina bada hauen gainean egin beharreko oso ñabardura esanguratsu bat.

Mikoletaren izkribuarekikoak eta *RS*-ekikoak dira soil-soilik Mitxelenak aipatutako *DLC*-ko desberdintasun batzuk (Madariagarekikoa ere bada bat): *DLC guerrial RS garrian*; *DLC eçurrat RS azur*, Mik *assurrá*; *DLC yçenal RS huçen*, Mik *usena*; *DLC ygueri eguin*/Madariaga, Mik *uguer*; *DLC eçin*/RS, Mik *echun*; *DLC ybilil RS*, Mik *ebili*; *DLC soroal RS soloy*.

Adibide hauek ez dute denek balio bera. Kontua da ertz bitako lekukoak alderatzen dihardugula: nonbait ere Gasteizkoa den *DLC*, alde batetik, eta bilbotarra zen Mikoleta eta, oro har, Bilbo inguruko hizkera islatzen duen *RS*, bestetik⁵. Madariaga ere arratiarra zen; mendebaleko sartaldekkoa, beraz, hau ere. Esan nahi dudana zera da: *DLC*-ko *gerri*, *izen*, *igeri* eta, zer esanik ez, *ibili* aldaerek ez dutela inondik inora ere ukatzen bizkaiera edo mendebaleko euskara denik, aldaera horiek ere eskubide osoz direlako mendebalekoak.

Era berean, *DLC*-ko *-ain* gorde duten *errayna*, *gaynean* aldaerek, soziati-boko *-kin* morfemak eta *egon*-en adizkietako *-de* pluralgileak ez dute bizkaiera edo mendebaleko euskara dela erabat ukatzen. Deba arroan, eta baita Bizkaiko ekialdean ere, *erraiñal erraiñe* (baina *errana* Oñatin eta Leintzen), *gaiñian/gaiñien* aldaerak eta soziati-boko *-kin* morfema badira, eta aditzen pluralgilea *-z* den arren, salbuespena da *egon*-en adizkiena. Gaurregun, behinik behin, *-de* (> *-re*) pluralgilea duten *egon*-en adizkiak erabiltzen dira Antzuolan, Bergaran eta Soraluzen eta *-del*-*z* lehia dago Elgetan, Eibarren eta Elgoibarren; cf. Eibarko *garel gaos*, *darel daos*, *gendenl gengosen...* (Eibarko Aditz-Batzordia 1998: 119).

Eta, hain zuzen ere, honetantxe dago auzia: Bizkaiko sartaldeko lekukoekin gabe (*RS*, Mikoleta, Madariaga), Deba arrokoekin alderatu behar dela *DLC*-ko edo Gasteizko euskara. Mitxelena bera ere ohartu zen *DLC*-ren eta Oñatiko eskuizkribuaren arteko kidesan batzuez, esate baterako: *DLC ygueri eguin*/Oñ *igueri juan*; *DLC eçin*/Oñ *etzin*; *DLC pulçatul*/Oñ *pultzaca*; *DLC quilçeal*/Oñ *quiltza*. Eta bide horretan gehiago sakondu izan balu, *DLC*-ko *gutxi* eta *biurtu* aldaerak Deba arroan ere badirela ikusiko zukeen eta baita *iltze*, *barkatu*, *soro*, *madura* aldaerak ere alderdi horretako hizkera batzuetan.

⁵ *RS*-en hizkeraren jatorriaz, ikus orain Lakarra (1996) saio argigarria.

Azken baten, beraz, Mitxelenak aipatu zituen hamabost aldaeretatik, sei baizik ez dira, gaurregun behintzat, mendebaletik erabat aldentzen direnak: *ezur, erdara, irten, ingiru, iguzki⁶ eta aldaere*.

4.3. Arabako euskara mendebalarekin batzen duten ezaugarriak

Esango nuke, bestalde, Mitxelenak ez ziela indar bera eman *DLC* bizkaieratik banatzen zuten ezaugarriei eta harekin batzen zutenei. Honetan ere, jakina, ezin zaio errua Mitxelenari berari leporatu, gaurregun dakizkigun hainbat gauza zeharo ezezagunak zirelako 1958an. Baina gaurregungo ikuspegi horretatik begiratuta, mendebaleko bereizgarri diren ezaugarri asko Araban ere bazirela ikusten dugu eta, gauzak bere osotasunean hartuta, gehiago dira, gainera, *DLC*-ko hizkera mendebalarekin batzen duten ezaugarriak harrengandik banatzen dutenak baino. Ezaugarri horietako batzuk Mitxelenak berak aipatu zituen, baina zerrenda osoa aurkeztuko dut hemen:

(1) Hitzoia *-a + a* mugatzailea → *-ea*. Horren adibide, *DLC*-ko *quilçea* ‘giltza’, *errexalean frutea* ‘errexalaren fruta’, *punteaquin* ‘puntarekin’... Arabako lekuko guztietan –Portal barne– betetzen da disimilazio bilakaera hau, eta baita Araba osoko toponimian ere: *aldapea, errekea, erripea, errotea, eskinea, estradea, kalzadea, landea, madureal padurea* gisakoak, horren lekuko.

(2) ‘Vj + z/tz → V + x/tx’ bustidura. *DLC*-ko adibide hauek lekuko: *axcorea* ‘aizkora’, *axea* ‘haizea’, *elexa* ‘eliza’, *guoxa* ‘goiza’, *nax* ‘naiz’, *nox* ‘noiz’, *querexea* ‘gerezia’, alde batetik, eta *acha* ‘haitza’, *a[c]hurra* ‘aitzurra’, *arecha* ‘haritza’, *vaquocha* ‘bakoitza’, bestetik. Betolatzaren hizkeran ere betetzen da bilakaera, baina ez Arabako sortaldeko izkribuetan: *naiz, eliçaco, gaizto* ageri dira hauetan, eta *DLC*-n bertan ere *gach/gaysç* ‘gaitz’ lehia dago.

Toponimiari dagokionez, era berean, aldaera bustiak agertzen dira Arabako sartaldean: *atx, aretx, elexal eleja, lexar*. Ostera, bustigabeak dira gehienbat sartaldean eta bien lehia dago erdialdean, bustiak nagusi diren arren. Dena dela, Araba osoko toponimian azaltzen dira *bakotxa* ‘bakoitza’, *kerexa* ‘gerezia’ aldaerak, eta badirudi *atxur* ‘aitzur’ aldaera ere Araba osokoa izan dela.

(3) Arestian esan denez (§ 3), Araba osoan –edo gehienez, behinik behin– izan da sozietiboko *-gaz* morfema, nahiz eta *-kin* lehiakide izan duen erdialdeko eta sartaldeko hizkeretan.

(4) Bizkaiera zaharreko ablatiboko *-(eta)rean* morfema erruz azaltzen da *DLC*-n: ‘de cada parte: *aldeguztietareã*’, ‘de fuera: *aterean*’, ‘cual quiera de dos: *vietaren edoçeyn*’, ‘de donde: *noreã*’, ‘de lexos: *vrutirean*’, ‘desconunir: *conciertoreã yrten*’, ‘conualeçer de dolencia: *dolençiareã conualecidu*’, ‘libre hecho de sieruo: *esclaburean libre eguin*’...

Hein baten harrizkoa bada ere, Betolatzaren kristau-ikasbidean birritan baizik ez da azaltzen morfema hau. Agerraldi bietan esapide bera da, gainera, eta fosil itxura dauka: *erresucitadu eban hilaren arterean; erresucitadu ebala yrugarren egunean hilaren arterean*.

Portalek ez zuen morfema hau erabili, eta bai, ostera, mendebaletik aldentzen den *-rika*: *pobreçarica yrten*. Aldaera hau sarri erabili ohi zuen Porta-

⁶ Baina aldaera hau (eta *eguski*) Zeberion eta Diman ere jaso dut. Arabako muga ondoan daude Bizkaiko herri bi hauek.

lek, eta ablatiboan ez ezik baita partitiboan eta partizipioan ere.

Gamizen eta Albenizen izkribuetan ere ez da agertzen *-(eta)rean*, baina hauek 18. mende hondarrekoak dira eta Bizkaian ere ez zen orduko emankorra (zehatzago in Lakarra 1984).

(5) Gipuzkoan eta Nafarroako mendebaleko hizkeretan hurbiltze adlatiboko *-rutz* morfema dago adizlagunetan, alegia, *onutz(a)*, *orrutz(a)*, *arutz(a)* tankerako aldaeretan. Mendebalean, ostera, zeharo emankorra da eta izenei ere eransten zaie. Mendebaleko berrikuntza dirudi honek, eta *DLC* bat dator berarekin. Horren adibide, bertako *aşceruşç*, *barrurusç*, *escubiruşç*, *esquerrerusç*, *goruşç*, *norusç*... Arabako gainerako izkribuetan ez da morfema honen lekukotasunik eta ezin jakin zer hedadura zuen Araban barrena.

(6) EH osokoa da *edozein/edozein* izenordaina eta Gipuzkoako iparraldean ere bada, behinik behin, *edozer*. Ostera, mendebaleko berrikuntza dirudi 'edo + izenordain galdetzailea' egitura bidez osatutako izenordain sail osoa. *DLC* ere bat dator mendebalarekin. Horren adibide, bertako *edonor*, *edonorean*, *edonolan*, *edonon*, *edonondi*, *edonoruşç*, *edonox*, *edoceynbat* eta, jakina, *edoceyn*. Arabako gainerako izkribuetan ez da honen lekukotasunik, baina esan dezadan *nornay*, *nornaic* orokorrak erabili zituela Gamizek.

(7) Nor-Nori-Nork saileko adizkietan mendebaleko *eutsi* erroa Araban ere bazen. Bera da Betolatzak erabili zuen bakarra eta *eutsil*-i* lehia daukagu Gamizen eta Albenizen izkribuetan. Gamizen bertsoetan datiboa 3. pertsonakoa denean azaltzen da **-i-*: *deust/dust* 'dit', *duztazu* 'didazu', *duzco* 'digu', alde batetik, eta *dio*, *cio* 'zion', bestetik. *DLC*-n ez da adizki hauen adibiderik eta **-i-* erroa da Portalek erabili zuen bakarra: *digus* 'dizkigu'.

(8) Mendebalean nagusitu den *egin* erroa nagusi zen Araban ere. Bera da Betolatzak, Gamizek eta Portalek erabili zuten bakarra, Gamizen hauek lekuko: *euqui eguizu* 'ezazu', *pistu naizu* 'nazazu', *biraldu eidazu* 'iezadazu'... Albenizek ere erro hauxe erabili zuten gehienetan, baina **ezan* erroaren adibide gutxi batzuk ere baditu honek.

(9) Mendebalean *-eu-l-au-* da *edun*-en adizki batzuen erroa; cf. *dau* 'du', *dabe* (< dau + e) 'dute'; *neuke* 'nuke', *neban* (< neuan) 'nuen'. Arabako lekuko guztietan –Portal barne– agertzen da erro hau.

(10) Arestian ikusi denez (§ 3), Arabako lekuko guztietan –Portal barne– dago *-z* aditz pluralgilea.

(11) Mendebalean bezala, gaztelaniatiko *-ado* tankerako partizipioak *-adu* bilakatu dira Betolatzaren eta Albenizen izkribuetan eta *DLC*-n. Horren adibide, *DLC*-ko *abrewiadu*, *acordadu*, *acostumbradu*, *vsadu*... Gamizek eta Portalek, ostera, *-atu* tankerakoak baizik ez zituzten erabili.

(12) Era berean, gaztelaniatiko *-ido* tankerako partizipioak *-idu* bilakatu dira Betolatzaren eta Albenizen izkribuetan eta *DLC*-n. Horren adibide, *DLC*-ko *abatidu*, *aborreçidu*, *prometidu*... Gamizek eta Portalek, ostera, *-itu* tankerakoak baizik ez zituzten erabili.

(13) Aditz-izenak osatzeko aukera zabala dago mendebalean, eta gauza bera ikusten da Betolatzaren eta Albenizen izkribuetan eta *DLC*-n. Hiztegi honetan, esate baterako, mendebaleko bereizgarri diren lau aukera hauek daude, besteak beste:

a) *-itan*, partizipioa *-atu*, *-adu* denean: *aurreraytan* 'aurreratzen', *confiaytan* 'konfiatzen'. Antzeko aldaera (*-iten*) baliatu zuen Albenizek partizipioa *-adu* zuten aditzekin.

b) *-etan*, partizipioa *-idu* denean: *desfaboreçietan* ‘desfaborezitzen’. Albenizek ere baliatu zuen aukera hau. Baita Betolatzak ere, baina honek era askotako aditzekin.

c) *-ketan*, partizipioa *-tu* eta silaba bitik gorakoa denean: *arguiquetan* ‘argitzen’. Albenizek *-itu*, *-atu* tankerako partizipioekin baliatu zuen aukera hau.

d) *-zaiten*, partizipioa *-tu* eta silaba bikoia denean: *arçayten* ‘hartzen’.

Gamizek eta Portalek *-tenl-tzen* orokorrak baizik ez zituzten erabili, baina adibide gutxiegi dauzkagu Portalen poesian erabateko ondorioak atera ahal izateko.

(14) EH osoan erabili ohi den *ari izan* ezezaguna da mendebalean, eta Arabako lekukoetan ere ez da sekula ageri. *DLC*-n, *ibili* eta *egon* dira ordezkioak: ‘arrullarse la paloma: *vsoa vrruetā eguō*’, ‘relampaguear: *yrastuca eguon*’, alde batetik, eta *escayten dabilena*, *auçitan davilena*, *ybili afia eguiten*, *auçitan ybili...* bezalakoak, bestetik.

(15) Izenaren eskuinetara ezarri ohi da mendebalean *bi* zenbatzailea. Arabako lekukoei dagokienez, Gamizek eta Albenizek erabili zuten zenbatzaile hori, eta izenaren eskuinetara jarri zuten biek. Horren adibide, Gamizen *arreba biai*; *matel bietan*.

(16) Mendebaleko bereizgarri diren hainbat aldaera fonetiko ere agertzen dira Arabako lekukoetan. *DLC*-koak dira hauek: *u-* duten *vlea* ‘ilea’, *vruna* ‘irina’ (Gamizek ere *ule*); *-a-* duten *vardin* ‘berdin’, *barria* ‘berria’, *charria* ‘txerria’, *balça* ‘beltza’ (baina *berri*, *belcha* Gamizek); *-r-* duten *verarra* ‘belarra’, *erurra* ‘elurra’, *yrarr balça* ‘ilar’, *yrarrguia* ‘ilargia’ (baina *elur* Gamizek); *n-* duten *narrua* ‘larrua’, *nassaytu* ‘lasaitu’; *-n* duten *nolan* ‘nola’, *edonolan* ‘edonola’, *onelan* ‘honela’, *bestelan* ‘bestela’, *beralan* modu adberbioak (*-n* dute Betolatzaren adibideek ere eta *-nl-ø* lehia Gamizek eta Albenizek erabilita-koek); ozen ostean herskari ahoskabea atxiki duten *temporea* ‘denbora’, *gentea* ‘jendea’ (baina *aldarea* ‘aldare’); *-gi* duten *exegui* ‘eseki’, *eraxegui* ‘irazeki’, *eregui* ‘eraiki’ (Betolatzak ere bai), *evagui* ‘ebaki’, *yregui* ‘ireki’ (Portalek ere bai), *issugui* ‘ausiki’, *jagui* ‘jaiki’ partizipioak; *-itu* duten *balçitu* ‘belztu’, *osçytu* (eta *osçtu*) ‘hoztu’ partizipioak eta *baten* ‘batean’ inesibo zaharra.

Beste aldaera hauek ere badira: *echy* ‘utzi’ (Betolatzak ere bai eta *izten* Gamizek; cf. bizk. zah. *etxi*, bizk. mod. *itxi*), *guçurra* ‘gezurra’ (Betolatzak ere bai), *emon* ‘eman’ (Betolatzak eta Albenizek ere bai), *bere* ‘ere’ (Betolatzak ere bai eta *berelere* lehia Albenizek, baina *ere* Gamizek), *barrea*, *querexea* ‘gerezia’, *surra* ‘sudurra’ (Betolatzak ere bai, baina *sudur* Gamizek), *orioa* ‘olioa’, *escuturra* ‘eskumuturra’, *gaztaya* ‘gazta’, *ardao* ‘ardo’, *chixea* ‘pisa’.

Arabako toponimiari begiratzen badiogu, bestalde, Araba osoan dauzkagu (*h*)uril (*h*)ulli ‘hiri’, *barri* ‘berri’, *baltz* ‘beltz’ eta *berarl bedar* ‘belar’, eta Araba gehienez *solo* ‘soro’. Araba osokoa, edo gehienekoa, dirudi *txarri* ‘txerri’ aldaerak ere.

(17) Lexikoa aztertzen badugu, era berean, mendebaleko hainbat hitz berezi azaltzen zaizkigu Arabako lekukoetan. *DLC*-koak dira hauek: *ardia* ‘arkakusoa’, *baracaça* ‘baratxuria’, *eguçaria* ‘jaia’ (Betolatzak ere bai), *eroan* ‘eraman’ (Portalek ere bai eta *eranl eraman* lehia Gamizek), *gura* ‘nahi’ (Betolatzak eta Albenizek ere bai), *leguez* ‘bezala’ (Betolatzak eta Albenizek ere bai), *ocarana* ‘arana’, *ogui ta gatzaya* (baina, honekin batera, *ergunedia* ere jaso zen *DLC*-n), *ostera* ‘berriro’, *segui* ‘haur’, *sugatea* ‘sukaldea’, *vgaçaua* ‘ja-

bea', *vrregorria* 'urrea', *vrreçuria* eta *vrraguina* 'zilarra/zilargina', *vya* 'bikea', *vearr* 'lan', *verba* 'hitz' (Betolatzak eta Albenizek ere bai), *yrea* 'iratzea', *ytaundu* 'galdetu'... eta asteko egunen izenak, alegia, *ylena* 'astelehena', *martičena* 'asteartea', *eguaštena* 'asteazkena', *eguauna* 'osteguna', *çapatua* 'larunbata', *domequa* 'igandea' (Betolatzak ere bai).

Mendebaleko ezaugarri gehiago ere bada Betolatzaren kristau-ikasbidean; baina ageri-agerian dago Betolatzaren hizkera –eta Arabako sartaldekoa, oro har– eta Bizkaikoa bat direna. Arabako erdialdekoa eta sortaldekoa dira eztabaidagai eta, eztabaida hori argitzea, saio honen helburua.

4.4. Arabako euskara mendebaletik banatzen duten ezaugarriak

Dagoeneko ere aipatu dira Arabako euskara mendebaletik aldentzen duten ezaugarri batzuk, baina zerrenda osoa aurkeztuko dut jarraian:

(1) *-ain*, *-uin* diptongoak gorde izana (baina *-an*, *-un* duten aldaerak ere baditu Gamizek). Gaurregun Elgoibar da *-ain* duen mendebaleko herri bakarra, nahiz eta *erraiñal erraiñe* aldaerak Deba barrenean eta Bizkaiko iparrekialdean ere badiren, eta hemen ez eze Deba goienean ere bai *gaiñian/gaiñien*⁷.

(2) 'Vj + z/tz' gorde izana. Gaurregun Deba barrenean dauzkagu busti gabeko aldaerak.

(3) Portalek ablatiboan, partizipioetan eta partitiboan erabili zuen *-rika* aldaera. Gaurregun Elgoibar da *-tikan*, *-rikan* aldaerak erabiltzen diren mendebaleko herri bakarra.

(4) 3. graduko erakusleetakoa *-rt-*, *-rk-* kontsonante multzoak. Gaurregun Deba arroko hizkera batzuetan ere erabiltzen dira.

(5) Absolutiboko 3. graduko erakuslea *ao* da *DLC*-n eta *ura* Gamizen bertsoetan. Mendebalean *a* da, baina *aura* Deba barrenean.

(6) Erdal *-tione* > *-zio* bilakaera. Horren adibide, *DLC*-ko *absoluçioa*, *accusaçioa*, *alteraçioa*, *bendiçioa*... Betolatzak da mendebaleko *-ziño* (*bendiciño*) erabili zuen arabar bakarra.

(7) *edun*-en erroa *-u-* da (cf. *DLC*-ko *dut*, *duc*, *duçu*) eta are *-e-* ere Gamizen eta Portalen izkribuetan. Albenizek gehienetan *-u-* erabili zuen arren, mendebaleko *-o-* ere baliatu zuen eta hauxe da, jakina, Betolatzak ere behin izan ezik gainerako guztietan erabili zuena.

(8) Mendebalean eta EH gehienean legez, *-a-* da batzuetan *izan*-en erroa (cf. *gara*, *zara*), baina Gipuzkoa aldeko *-e-* ere ezaguna zuten Gamizek eta Albenizek. Gaurregun Elgoibar da *-e-* erroa erabiltzen den mendebaleko herri bakarra.

(9) N-N-N saileko **-i-* erroa, nahiz eta *eutsi* ere erabili zuten Gamizek eta Albenizek. Gaurregun Elgoibar da **-i-* erroa erabiltzen den mendebaleko herri bakarra.

(10) Nor-Nori saileko adizki bakarra erabili zuen Albenizek eta *z-* orokorra dauka berak: *zazun* 'zaizun'. Betolatzak erabili zituenean, berriz, men-

⁷ *Deba barrena* deitzen dudana hizkuntza aldetik honako herri hauek osatzen dute: Antzuolak, Bergarak, Soralezek eta, aldeak alde, Elgoibarrek. Oñatik, Elgetak, Eibarrek eta Ermuak ere sarri egiten dute eremu horrekin bat. *Deba goiena*, berriz, Aramaiok, Leintz ibarrak (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate) eta, aldeak alde, Oñatik osatzen dute.

debaleko *j-*, *-txa-* daukate: *jacaz* ‘zaizkio’, *nachaco* ‘natzaio’.

(11) Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailetako 2. pertsona pluraleko adibide banatan mendebalean ezezaguna den *-te* aldaera erabili zuen Gamizek: *arrapatu nauzute*; *ene gorainciac emozute*. Dena dela, inolako morfema berezirik ez erabiltzea da Gamizen joera nagusia (*-zu(t)e = -zu*), Albenizena eta Portalena zen bezala; cf. *ay ene chori ariñac legatzen duzul jaulaco carcel bagal fortuna duzu*.

(12) *egon*-en adizkietako *-de* pluralgilea. Gaurregun Deba barrenean erabiltzen da.

(13) Gamizek eta Portalek gaztelaniatiko maileguetan erabili zituzten *-atu* gisako partizipioak.

(14) Gamizek eta Portalek gaztelaniatiko maileguetan erabili zituzten *-itu* gisako partizipioak.

(15) EHko erdigunean hedatu diren *izandu* ‘izan’, *egondu* ‘egon’ tanke-rako partizipiorik ez da mendebalera iritsi. *DLC*-n, ostera, *erabildu*, *assitu* (eta *assi*), *viçitu*, *yldu* (eta *il*) ditugu eta, *egondu*, Portalen poesian.

(16) Gamizek eta, ziurrenera, Portalek aditz-izenak egiteko erabili zuten *-tzenl-ten* aukera bikoitza. Gaurregun Deba barrenean dago aukera soil hori.

(17) Mugimenduzko aditzekin doan aditz-izena adlatiboan jarri ohi zuten Gamizek eta Albenizek. Gamizena da *joateco paseatzera* eta Albenizena, berriz, *entregaitera nua*. Adlatiboa baliatu zuen Gamizek beste honetan ere: *ifini juczera*. Betolatzak inesiboa erabili zuen, mendebalean ohikoa den legez: *etorrigo da juzgaetan hilac eta viciac*; *christiñau fiel gustia dago asco obligaduric euten devocinoea*. Gaurregun Deba barrenean erabiltzen da adlatiboa.

(18) Mendebaletik aldentzen diren aldaera fonetikoaren artean, Mitxele-nak *DLC*-n aurkitutakoak gogora ekarri behar ditugu lehenbizi: *eçurra*, *erda-rea*, *yçusquia*, *hirten*, *ynguiruan*, *aldarea*, *becatua*, *vagussoa* (baina *paguoa*), *pişca*, *gatea*, *ditarea*, *ditia*, *temporea*, *goypea*. Baita beste hauek ere: *vnidea* (Bizkaian eta Gipuzkoan *inudea*), *escubia* ‘eskuina’ (Betolatzak *escoa*), *sorr* ‘gor’ eta *vrutian* ‘urrun’, Gamizen *becala* ‘bezala’ eta *matel* ‘masail’, Gamizen eta Albenizen *ere* (eta *bere* Albenizek), Gamizen eta Portalen *guzi* (eta *guzti*) eta Portalen *orai* (eta *orain*) eta *gabe*.

Mendebalean *-to* atzizki bidez egin ohi dira adberbioak, baina Deba arroko hizkera batzuetan ezaguna da *DLC*-ko eta Gamizen bertsoetako *gaisqui*. Ez, ordea, azken honek erabili zituen *ongui*, *obequi* (baina *ondo* ere erabili zuen).

Ez dirudi Albenizek mendebaleko *zerl* zertzuk, *norl* nortzuk, *zeinl* zeintzuk bereizten zituenik. Horren lekuko bere *zeñec vitci zaràn* ‘zeinek bizi zaretan’. Betolatzak, ostera, baliatu zuen *ceinzuc*.

(19) Lexikoaz den bezainbatean, gutxi dira *DLC* mendebaletik aldentzen duten hitzak: *apaeça* ‘apaiza’ eta *gau enarea* ‘saguzaharra’ dira nabarmenenak. Albenizen eta Portalen izkribuetan ez dago zer aipatu handirik, baina bai Gamizen bertsoetan. Dena dela, honen *anitz*, *asqui*, *carrica*, *eraman* (eta *eran*), *fite*, *itz*, *juczera* ‘xukatza’ eta *mintzacen* ezin jakin bere sorterrian ala Iruñean egin zuen egonaldian ikasitakoak ote ziren.

Hamazazpi ezaugarriko zerrenda honetako sei Deba arroan ere ezagunak dira: ‘Vj + z/tz’ gorde izana, 3. graduko erakusleeta *-rt-*, *-rk-* kontsonante multzoak, absolutiboko 3. graduko *aura* erakuslea, *egon*-en adizkietako *-de* pluralgilea, aditz-izenak osatzeko *-tzenl-ten* baizik ez izatea aukeran

eta mugimenduzko aditzekin doan aditz-izena adlatiboan ezartzea. Ezin da, beraz, esan sei ezaugarri hauek mendebaletik zeharo eta erabat aldentzen direnik.

Azken baten, arestian esandakoa sendotzen du honek, alegia, Deba arroaren jarraipena dela Arabako erdialdea, eta baita –apalago izan arren– Arabako sortaldea bera ere. Sortalde honetako izkribuak, hau da, Garzia de Albeniz, Gamiz eta Portalenak dira mendebaletik gehien urruntzen direnak. Baina hauetan ere ez da erabatekoa etena, eta sarri ikusten da eremu bateko eta besteko ezaugarrien lehia. Horren lekuko, berauetan ditugun sozietiboko *-kinl-gaz* morfemak, *edun*-en adizkietako *-u-l-e-l-o-* erroak, *izan*-en adizkietako *-a-l-e-* erroak, N-N-N saileko *eutsil*-i-* erroak, *eginl*ezan* erroak, *egon*-en adizkietako *-del-z* pluralgileak, 2. pertsona pluraleko *-tel-ø* morfema pluralgilea eta *eramanl eran*, *erel bere*, *guzil guzti*, *ongil ondo*, *orail orain* aldaerak.

4.5. Arabako euskararen bereizgarriak

Arabakoa euskalki berezia ez dela esateko beste arrazoi esanguratsu bat ere bada: ez dago Araba bertako ezaugarriez osatutako multzo hazirik. Badira, jakina, Arabako hitz bereziak; *errexala* ‘zuhaitza’ ezaguna da horietako bat. Arabakoak diruditen aldaera bereziak ere badira: *bara* ‘para’, *galamua* ‘kalamua’, *gipulla* ‘tipula’, *guya* ‘kuma’, *korrinko* ‘gorringo’, *iluña* ‘iluna’, *zufi* ‘zubi’, esate baterako. Baina ez dago Arabako ezaugarri fonologiko, morfologiko eta sintaktiko berezirik.

Ezer aipatu behar izatekotan, objektu pluralarekiko komunztadura eza nabarmenduko nuke. Gamizen eta Albenizen izkribuetan eta *DLC*-n betetzen da ezaugarri hau, hiztegi honetako *velarri andiac daucana* (eta ez *dauzcana*) lekuko. Portalen adibide bakarrean zuzen egiten da komunztadura, baina adibide berezia da, *edun* delako aditza. Dena dela, Gamizen bertsoetan *edun*-en adizkiek ere ez dute egiten komunztadura: *ezcuac duzu leun*, horren adibide.

Baina ezaugarri hau ere ez da, azken baten, Arabako bereizgarria, Arabatik kanpo ere ezaguna da-eta. Gaurregun behintzat, Leintz ibarrean, Oñatin, Antzuolan eta Bergaran, Urretxun eta Zumarragan eta Goierriko hizkera askotan betetzen da, hizkera batzuetatik bestetara aldeak diren arren.

Bada nabarmendu nahi dudana beste bereizgarri bat ere. Arabako argibideak gutxi eta zatikakoak diren arren, badirudi bertako euskara zenbait gauzatan *berritzailea* izan zela. Horixe aditzera ematen dute, behinik behin, bertako lekukoek. Ez dugu ahaztu behar, dena dela, Araban hiru hizkuntza eremu berezi direla, eta berrikuntzak ere, beraz, eremu horien arabera izan daitezkeela; alegia, ez Araba osoan eta une berean egin zirenak. Hona hemen balizko berrikuntzon zerrenda:

(1) Aditz-oina galtzea. Partizipioa baizik ez dago *DLC*-n eta Betolatza-ren kristau-ikasbidean. Arabako sortaldeko Gamizen eta Albenizen izkribuetan ditugu aditz-oinaren salbuespen bakarrak. Partizipioa erabili zuten hauek ere gehienetan, baina *guarda zaitela Jaincoac* jarri zuen Gamizek eta *veguira zazu*; *beguira eguizu* Albenizek, fosildutako egitura antzera bada ere. 16-17. mendeetako Bizkai aldeko lekukoetan, aldiz, bizirik dago aditz-oina (zehatzago in Lakarra 1986: 664-665).

(2) **ezan* erroa galtzea eta *egin* erabat nagusitzea. Atzera berriro ere Arabako sortaldeko Albeniz da salbuespena: gehienetan *egin* erabili zuen arren,

**ezan* ere ezaguna zuen. Ostera, 16-17. mendeetako Bizkai aldeko lekukoe-tan bizirik dago **ezan* erroa (zehatzago in Lakarra 1986: 656-657).

(3) Aditz-izenarekin doan osagarri zuzena absolutiboan dago beti; sekula ere ez genitiboan. Otoitzetan, esate baterako, egitura fosilduak agertzea errazagoa den arren, absolutiboa aurkitzen dugu. Horren adibidea daukagu 1596ko Betolatzaren kristau-ikasbidean: *aric etorrigo da juzgaetan hilac eta viciac*. 1656koa den Kapanaga mañariarrarenean, ostera, genitiboa baliatu zen: *ilaen eta viçien juzgaetara* (zehaztasunak in Lakarra 1983: 58hh eta Lakarra 1986: 659-660).

(4) Aoristoak galtzea. Arabako lekukoetan ez da adizki hauen aztarnarik. Bizkaiko hizkera batzuetan, berriz, oso berandu arte iraun dute bizirik (gogora bedi Juan Mateo Zabalaren (1848: 56) lekukotasuna).

(5) *edun*-en adizkiak galtzea. Gaurregun Bizkaian, eta baita Gipuzkoako mendebalean bertan ere, laguntzaile bezala eta balio kopulatiboa duen kasu batzuetan baizik ez da erabiltzen *edun*. Bestelakoetan, *eduki* baliatu ohi da. Badirudi aspaldikoa dela bilakaera hori Arabako hizkera batzuetan. *DLC*-n behintzat, azaltzekotan, partizipioetan baizik ez da azaltzen *edun*: 'menester: *bearr eun*', 'marauillarse: *miracuru eun*', 'misericordia auer: *piedade eun*'. Bestela, aditza jokatzeko denean batez ere, *eduki*-ren adizkiak baliatzen dira: *eda-teco gura euqui, buru andia daucana, pişç asco daucã gauçea, usay gayxtoa daucã gauçea...*

Eta, azken baten, Mitxelenak *DLC*-ko hizkera bizkaieratik bereizteko aipatu zituen hiru ezaugarri ere Arabako euskararen izaera berritzaile honek azal ditzakeela iruditzen zait:

(6) Bokal bitu eza.

(7) Bokal sudurkari eza.

(8) *-*ane* zein *-*ani* amaieren eratorriek bilakaera bera (-*ai*) izana.

5. HONDAR HITZAK

1958an egin zuen Mitxelenak Arabako euskara ezagutzeko lehen urratsa. Lehena, baina ez horregatik txikia. Dena dela, Landuchioren hiztegian soil-soilik oinarrituta egin zuen urratsa. Berrogei urteren buruan, baina, Araba aldeko lau lekuko gehiago eta balio handiko beste hizkuntza hondarki batzuk ditugu eskura.

Lanabesak gehitzeak eta euskal dialektologia bera ere bizkortzeak Arabako euskara hobeto ezagutzeko bidea zabaldu du eta, horren froga, Mitxelenak 1958an aurkeztu zituen zortzi ezaugarrietatik saio honetan aurkeztu diren hogeita hamalauetara dagoen jautzia.

Arabako euskara hobeto ezagutzeak zuzenago kokatzen ere laguntzen du eta, dagoeneko, nekez eutsi dakiok euskalki berezia zen usteari. Araba gehiena mendebaleko euskalkiaren eremukoa zela esan da saio honetan. Hamabost ezaugarri, hainbat aldaera fonetikok eta lexikoan diren kidetasunek erakusten dute lotura hori. Badira, gainera, beste hiru ezaugarri, mendebalean orokorrak izan ez arren, Deba arroan badirenak eta, hartara, hemezortzira iristen da kidetasunen kopurua.

Arabako sortaldeko lekukoak dira mendebaletik gehien aldentzen direnak. Mendebalekoak diren hamabost ezaugarrietatik lau ez dirudi hemen erabat betetzen zirenik eta, aitzitik, badira bertan mendebalean ezezagunak

diren hamaika ezaugarri. Hori dela-eta, Arabako sortalde ez da mendebaleko euskalkian sartu eta mendebaleko, erdialdeko eta euskara nafarraren tar-teko eremutat jo da.

Oso isoglosa berezia osatzen duen ezaugarri bat ere aurkeztu da: objektu pluralarekiko komunztadura eza. Arabako erdialdeko eta sortaldeko leku-koetan eta gaurregungo Deba arroko hegoaldean, Zumarraga-Urretxu gunean eta Goierri gehienez betetzen da, aldeak alde, ezaugarri hau. Ezin jakin zein ote den beronen sorburua, baina litekeena da Arabatik Gipuzkoako aipatu alderdietara hedatu izana. Gauza bat, behintzat, garbi dago: Leintzek, Oñatik eta Goierrik mendeetan zehar Arabarekin izan duten hartu-eman oso estua izan dela, eta gaurregungo euskararen ere nabari dela hartu-eman horren zenbait aztarna.

Beste gauza batzuetan argiago azaltzen da Arabako euskararen izaera berritzailea. Gaurregun mendebalean galduta dauden ezaugarri batzuk bizirik zeuden Bizkai aldeko 16-17. mendeetako izkribuetan, baina ez, oster, Arabakoetan. Litekeena da Araban –edo Arabako gune batzuetan, zuzenago esateko– orduko galduak izana. Zortzi ezaugarri aurkeztu dira horren adibide.

ARGIBIDE BIBLIOGRAFIKOAK

- ALTUNA, Fidel (1995), “*Acto contriciocoa eriotzaco orduracò*: Garcia de Albeniz araiarraren araberazko eskuizkribua (1778)”, *ASJU* 39-1: 83-132.
- AÑIBARRO, Pedro A. (1963), *Voces bascongadas*. [L. Villasante, arg.], Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbo.
- (1969), *Gramática bascongada*. [L. Villasante, arg.], *ASJU* 3: 3-169.
- BONAPARTE, Louis-Lucien (1863), *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*, Londres.
- EIBARKO ADITZ-BATZORDIA (1998), *Eibarko aditza*, Eibarko Udala.
- GOIKOETXEA, Jon (1982), *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo poeta bilingüe alavés del siglo XVIII*, Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- HIDALGO, Victor (1996), “1778ko eskuizkribu bat Albeniz-Arabako euskararen?”, *FLV*, 73. zb., 483-491.
- KARDABERAZ, Agustin (1761), *Eusqueraren berri onac*, Iruñea. Facsimila: [L. Lopetegi, arg.], *Obras Completas de Agustin de Kardaberaz* (2 liburuki), LGEV, Bilbo, 1974, 153-170.
- KNÖRR, Henrike (1985), “Para una delimitación etno-lingüística de la Alava antigua. Ensayo de cartografía a partir de pruebas toponímicas”, *La formación de Alava. Comunicaciones (I). Congreso de Estudios Históricos*, Gasteiz, 489-541.
- (1986), “Betolazaren zenbait berri”, *ASJU* 20-2: 499-506. Berrarg., osatua, in [E. Knörr & K. Zuazo, arg.], *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1998, 49-56.
- LAKARRA, Joseba A. (1983), “Oharrak zenbait arkaismoz”, *ASJU* 17: 43-68.
- (1984), “Bizkaiera zaharreko ablatiboaz”, *ASJU* 18-1: 161-193.
- (1986), “Bizkaiera zaharra euskalkien artean”, *ASJU* 20-3: 639-681.
- (1996), *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Euskaltzaindia, *Euskararen Lekukoak-19*, Bilbo.
- LANDUCHIO, Nicolao (*DLC*), *Dictionarium linguae cantabricae (1562)*. [M. Agud & K. Mitxelena, arg.], *ASJU*-ren gehigarriak, 3. zb., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1958. Berrarg. in [E. Knörr & K. Zuazo, arg.], *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1998, 201-334.
- LARRAMENDI, Manuel (1729), *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca. Facsimila: Lur, Donostia, 1979.
- (1745), *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latin*, Donostia.
- (1969), *Corografía o descripción general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*. [I.

- Telletxea Idigoras, arg.], Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia.
- LOPEZ DE GERENU, Gerardo (1956hh), "Toponimia alavesa", *Anuario de Eusko-Folklore*, 1956-1980 bitarteko aleak. Berrarg. in Euskaltzaindia, *Onomasticon Vasconiae-5*, Bilbo. (1958-1973-1982), "Voces alavesas", *Euskera* 3: 173-367; 18: 119-149; 27-1: 239-248.
- MITXELENA, Koldo (1958), "Introducción al Vocabulario de Landuchio". [M. Agud & K. Mitxelena, arg.], *Dictionarium linguae cantabrigae (1562)*, ASJU-ren gehigarriak, 3. zb., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. Berrarg. in [E. Knörr & K. Zuazo, arg.], *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 1998, 21-48.
- (1964), *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril. Facsimila: ASJU-ren gehigarriak, 11. zb., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1990.
- MITXELENA, K., TOVAR, A. & OTTE, E. (1981), "Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, fray Juan de Zumarraga", *Euskera* 26-1: 5-14.
- OIHENART, Arnaut (1638), *Notitia Utriusque Vasconiae, tum Ibericae tum Aquitanicae*. 2. arg., osatua, Paris, 1657. Berrarg. [J. Gorosterratzu, itzul.] RIEV, 1926-1928 bitarteko aleak. Facsimila: LGEV, Bilbo, 1971-1972.
- (1967), *L'art poétique basque*. [P. Lafitte, arg.], Edition Gure Herria. Berrarg. in Eusko Ikaskuntza, *Cuadernos de Lengua y Literatura*, 15. zb., 1997, 177-207.
- SALABERRI, Patxi (1998), "Arabako mugako nafar hizkeren inguruan". [I. Camino, arg.], *Nafarroako hizkerak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 49-87.
- SANCHEZ, M. Nieves (1985), "Sobre el reparto de algunas variantes vascas en la toponimia alavesa (*ostelgibel, solol/soro*)". [J.L. Melena, arg.], *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, EHU, Gasteiz, 1.017-1.022.
- URKIXO, Julio (arg.) (1908-1910), "Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte á algunos de sus colaboradores", RIEV 2: 215-221 eta 655-659; 4: 233-297. Facsimila: LGEV, Bilbo, 1969.
- ZABALA, Juan M. (1848), *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*, Donostia.
- ZUAZO, Koldo (1994), "Burundako hizkera". [R. Gomez & J.A. Lakarra, arg.], *Euskal Dialektologiako Kongresua*, ASJU-ren gehigarriak, 28. zb., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.
- (1998), "Arabako Euskara". [E. Knörr & K. Zuazo, arg.], *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 125-189.
- (1998b), "Betolatzaren hizkeraz". [E. Knörr & K. Zuazo, arg.], *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 71-86.

LABURPENA

1958an, Landuchioren hiztegia aztertu ostean, Araba aldean euskalki berezia izan zitekeela esan zuen Mitxelenak. Berrogei urte hauetan, Arabako lekuko gehiago azaldu dira eta hazkunde nabarmena izan da dialektologia alorrean. Lanabes horietan oinarrituta, Araba gehiena mendebaleko euskalkiari atxiki behar zaiola esaten da saio honetan. Aldi berean, Araban izan zitezkeen hiru hizkuntza eremuen mapa aurkezten da.

RESUMEN

El estudio de la lengua del diccionario de Landuchio en 1958 hizo pensar a Mitxelena en la existencia de una variedad dialectal actualmente extinta del euskara. Sin embargo, el descubrimiento de nuevos testimonios del euskara alavés así como el importante avance que a lo largo de estos cuatro decenios ha conocido la dialectología vasca parecen desaconsejar dicha hipótesis. En este trabajo se argumenta la inclusión de la mayor parte del territorio alavés dentro del dialecto occidental, que continúa vivo en Bizkaia, en el valle guipuzcoano del Deba y en el alavés de Aramayona. Se presenta asimismo un mapa de las tres zonas lingüísticas que al parecer había en Álava.

RÉSUMÉ

L'étude de la langue du dictionnaire de Landuchio en 1958 a fait penser Mitxelena à l'existence d'une variété dialectale du basque actuellement disparue. Cependant, la découverte de nouveaux témoignages du basque d'Alava, ainsi que l'important développement que, tout au long de ces quatre décennies, a connu la dialectologie basque, semblaient déconseiller la dite hypothèse. Dans le présent travail, on argumente l'inclusion de la plupart du territoire de l'Alava dans le dialecte occidental, qui est toujours utilisé à Bizkaia, dans la vallée de Gipuzkoa du Deba et dans celui d'Araba d'Aramayona. On présente aussi la carte linguistique des trois zones linguistiques que, paraît-il, existaient en Araba.

ABSTRACT

His 1958 study of the language found in Landuchio's dictionary lead Mitxelena to suppose that some currently extinct dialectal variation may have existed. Nevertheless, the discovery of new evidence concerning Basque in Araba and the important progress Basque dialectology has witnessed over the last four decades would seem to differ from this hypothesis. The present study gives arguments to support the theory that the greater part of the territory of Araba should be included within the western dialect, still found in Bizkaia, the valley of Deba in Gipuzkoa and the valley of Aramayona in Araba. Likewise, a map showing the three linguistic areas that apparently existed in Araba is given.